

Eskola Historikoaren Aldizkaria-ren xedeaz*

SAVIGNY, Friedrich Karl von



Friedrich Karl von Savigny (Franckfort 1779 - Berlin 1861), jatorri frantseseko aristokrata bat zen. Heidelberg, Viena zein Berlingo unibertsitateetako irakasle izan zen, eta Zuzenbide Erromatarreko katedra lortu zuen azken honetan. 1842an Prusiako ministro izendatu zuten. Bere lanik ezagunenak honakoak ditugu: *Edukitzaren Zuzenbidea* (1803), *Gure denborak lege-gintzarako eta Zuzenbidearen zientziarako duen bokazioa* (1814), *Zuzenbide erromatarren historia Erdi Aroan* (1839) eta *Gaur egungo Zuzenbide Erromatarren sistema* (1840-49). Bera izan zen Alemaniako Zuzenbidearen Eskola Historikoaren sortzailea. Ezaguna da bere garaikide Thibaut-ekin izandako polemika. 82 urterekin hil zen.

Aldizkari honen egileak hau argitaratzera bultzatzen dituen, zuzenbidearen zientzia ulertu eta lantzeko moduari buruz euren guztien artean dagoen erabateko adostasuna da. Honako artikulua honetan, uste zabaldu honen berri emango dugu.

Juriskontsultu alemanen artean aspaldidanik nagusi diren metodo eta ikuspuntuen gainean gogoeta egiten duenak, hauek guztiak bi mota nagusitan taldeka daitezkeela ikusiko du, eta juriskontsultuak, era berean, bi eskolatan. Eskola hauen artean funtsezko desberdintasun bakar bat baino ez dago, eta eskola bakoitzaren barneko desberdintasunak erlatiboak direla esan daiteke, aldaketak ikusezinak baitira, eta bateragarriak gainera. Funtsezko antitesia, garai batean baino zehaztasun eta zorrozatasun handiagoarekin aldarrikatzen da gaur egun, eta hori denek onuragarritzat jo behar dute, bai liskarrean aktiboki hartzen dutenek parte, bai irtenbidearen zain ikusle lasai gisa daudenek; zeren eta ikusleak berak ere, orain baino lehen agian ezkutatu egiten zitzaionari buruz zehaztasun gehiagorekin informatzeko abantaila izango du gaur egun, alegia: bi bandoetako zeinen aldekoa den bere espiritua, eta, hortaz, nori begiratu behar dion lagun bezala eta nori arerio bezala.

Bi eskola horietako bat historiko izenez ezagutu izan da batik bat; bestearentzat, aldiz, zaila da izen positibo bat aurkitzea, zeren eta lehenengoari aurka egiteagatik baino ez denez eskola bat, izen anitz eta kontrajarriak eman zaizkio, eta filosofia, zuzenbide natural edo zentzu gisa ematen da aditzera. Beste esamolderen ezean, beraz, *ez historikoa* deituko diogu. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa da juristen eskola horien arteko antitesia ulertzea gure zientziari soilik jarraitzen baldin badiogu, antitesi hau oso orokorra eta giza arlo guztietan gutxi gora-behera ikus daitekeelako, batez ere estatuen eraketari eta gobernuei dagokien arloetan.

Hona hemen zein den arazo orokorra: zer-nolako harremana du iraganak orainarekin, Gertatzen denak Izanarekin? Honi buruz, batzuek diote aro edo adin bakoitzak askatasunez eta arbitrarioki ekoizten duela bere bizitza, bere antolaketa; ongi eta zoriontsu, edota gaizki eta zorte txarrekin, bere adimen eta indarraren arabera. Baina ez da batere txarra –gaia modu honetan kontsideratu arren– iragana aztertzea, bere bitartez ikas baitaiteke zein emaitza lortu diren hartutako jarrerarekin: historia, zentzu honetan, adibide politiko eta moralen bilduma bat da. Aipaturiko azterketa, hala eta guztiz ere, jenio batek erraz asko albora dezakeen ezagutza auxiliar ugarietako bat baino ez da.

* SAVIGNY, Friedrich Karl Von. "Eskola Historikoaren Aldizkaria-ren xedeaz", In: *Eleria. Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 3. zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998; 99-104 or. Itzultzailea: Koro Garmendia (Iturria: "Ubre den Zweck dieser Zeitschrift", *Zeitschrift für geschichtliche Rechtswissenschaft*, 1. zkia, I. Liburukia, 1815)

Besteen teoriaren arabera, ez dago guztiz banakakoa eta isolatua den giza existentziarik; aitzitik, banakakoa kontsidera daitekeen oro, goi osotasun bateko partaide bezala begiratu behar da. Horrela, gizabanako bakoitza, gizabanako kontsideratzeaz gain, familia bateko, herri bateko, Estatu bateko kide ere kontsideratu beharra dago; eta, herri baten historiako garai bakoitza, igarotako denboren jarraipen eta garapen gisa. Gainerako beste edozein ikuskera, partziala da hargatik, eta, bizitzari aplikatu nahi zaionean, faltsu eta kaltegarria bilakatzen da. Honen arabera, denbora bakoitzak ez du bere bizitza propioa izatez eta arbitrarioki sortzen, baizik eta iragan guztiarekiko duen elkartasun banaezin bati jarraituz. Kasu horretan, arrazoi beragatik, adin bakoitzak jada emana datorkion zerbait onartu behar du, aldi berean beharrezkoa eta askea den zerbait: beharrezkoa, ez delako orainaldiaren hautamen bereziaren arabera; askea, ez delako inoren borondateak inposaturikoa (jaunak bere esklaboei agintzen dienean bezala). Herriaren funts gorenetik jaiotzen da, etengabe bilakatzen eta garatzen den osotasun bat bezala. Oraingo adina goi osotasun honetako zati ere bada, osotasun horretan eta horrekin nahi eta jarduten duena; beraz, osotasunak egiten duena zatiak berak ere askatasunez egiten duela esan daiteke. Historia ez da, hortaz, adibide politiko eta moralen bilduma bat bakarrik, baizik eta baita gure estatua ezagutzeko bide bakarra ere. Ikuspuntu honetan dagoena, gainera, zio beragatik kontrako jarrera ere epaitzen ari da. Kontua jada ez da onaren eta txarraren artean aukeratzea, zerbait aintzatestea ona balitz bezala eta arbuiatzea txarra, eta bata zein bestea egitea erabat posible. Aitzitik, ezinezkoa da existitzen dena (*gegebenes*) –zeinak zorigaiztoko modu batean menperatzen gaituen– arbuiatzea; itxaropen ustelik eduki dezakegun arren, ezin dugu ekidin. Askatasun komun eta goren hori besterik posible ez den lekuan bere hautamen berezi propioa erabiltzen duela sinistuz bere burua engainatzen duena, bere eskubiderik preziatuenei uko egiten ari da: errege dela uste duen morroi bat da, gizaki askea izan zitekeenean.

Izan zen garai bat non zatiaren eta osotasunaren arteko banaketari irmoki eta arrakasta izateko konfiantza osoarekin erasotu zitzaion; ez orainaldiaren eta iraganaren arteko banaketari soilik, gutxi iruditzen baitzitzaien, baizik eta baita hiritarraren eta Estatuaren artekoari ere. Azken hau, esperientzia penagarriak medio, okerra eta kaltegarria dela aitortu dute, eta nahiz eta orain bertan bihotzean gordeta daukan eta praktikan gauzatu nahi duen jende asko dagoen, teorian ez da jada erraz sumatzen. Guztiz alderantzizkoa gertatzen da orainaldiaren eta iraganaren arteko beste banaketa horrekin, zeinak gaur egun ere nonahi aurkitzen dituen jarraitzaile publiko eta sutsuak, nahiz eta zentzugabea den bata arbuiatzea bestea jarraitzen den bitartea*. Egoismo historiko hau –hala dei baitakioke lehen banaketa hari– bestea baino denbora gehiagoan kontserbatu izanaren zergatia hauxe da: askok –ohartu ere egin gabe, egia esan– munduko ordenari buruz duten ikuskera pertsonala ordena horrekin nahasten dutela, eta horrela heldu dira mundua eurekin eta euren iritziekin hasi delakoaren sentimendu engainagarrira. Esan beharrik ez dago aipatutakoa, oro har, ez dela horietako inoren kontzientziara iristen; sentimenduaren esfera ilunean gelditu eta guztiz partikularrak diren aplikazioetan soilik agertzen da. Baina hori horrela den arren, literatur fenomeno bat baino gehiago dela esan daiteke.

Aplika dezagun bi ikuspuntuak –hau da, historikoaren eta ez historikoaren– arteko antiesiar buruzko azalpen orokorra zuzenbidearen zientzian, eta ez da zaila izango lehen aipatutako bi eskolen izaera zehaztea.

Eskola Historikoak onartzen du zuzenbideko materia nazioaren iraganetik eratorria dela; baina ez modu arbitrario batean, hau edo bestea izatea kasualitatea balitz bezala, baizik eta nazioaren beraren eta bere historiaren barne-barneko esentzietatik. Denbora bakoitzak, ondoren, barne behar batengatik jaiotako materia hori aztertzeraz, gaztetzera eta berri-berri mantentzera bideratu beharko du bere jardura.

Eskola ez historikoak, aldiz, zuzenbidea botere legegilea duten pertsonen hautamenaz sor daitekeela dio, iragan denboretako zuzenbidearekiko independentzia osoarekin, eta legegileen borondatearen arabera baino ez, oraingo une historikoak bere borondatea sortzen duen bezala. Hori dela-eta, zuzenbidea inoiz edo behin aurrekoarekiko erabat desberdina ez balitz, eskola honek hori azaltzeko lukeen erantzun bakarra litzateke legegilea bere karguaren egikaritzan nagia izan zela, eta, hortaz, iraganeko iritzi juridikoak oraindirako ere benetakoak bailiran mantentzeko beharra izan zuela, behin-behineko izaerarekin bederen.

Printzipio hauek kasu partikularretan aplikatu nahi dituen edonor jabetuko da bi eskolen artean dagoen kontraktotasun handiaz. Botere legegilearen eta judizialaren kuestioak, eta bereziki zuzenbideari buruz jarduteko modu zientifikoak; denak du oinarri desberdina, ikuskera bataren edo bestearen arabera. Praktikan, hala ere, ez da hain antitesi sakona ematen; aitzitik, bi eskolen fruituak nahiko antzekoak dira sarritan: errealitatean ohiki sentimenduaren inpresioagatik bakarrik ekiten delako gertatzen da hau, eta printzipio nahiz ondorio doktrinalak alde batera uzten direlako.

Aldizkari honen autoreek, uste osoz Eskola Historikoaren aldekoak izanik, aipaturiko eskolako ikuspuntuaren moldaera eta aplikazioa sustatu nahi dituzte beren ekin-tzen bidez; hein batean beren lan pertsonalen bitartez, eta beste hein batean beraiek bezala pentsatzen duten pertsonen lotura puntu bat eskainiz. Indarrak preziatuenei esker nazioaren interes gorenak salbu diren egunotan dugu, hain zuzen ere, ekintza horri itxaropen sendoekin ekiteko unea. Azken urte triste hauetan edonolako ikerketa historikoak –batez ere gure aberriari dagozkionak– egin izan balira ere, sentimendu lazgarria baino ez zuketuen sortuko; berri eta freskoa da, ostera, ikerketa horiek gaur egun duten pizgarria. Eta horregatik poztuko lirateke autoreak zuzenbide nazionalaren azterketa historikoari bultzada berri bat ematea lortuko balute. Hain altxor ezkutu aberats eta ezezagunak daude hemen oraindik, ezen Eskola Historikoaren aurka daudenek zuzenbide erromatarraren historiaren azterketa neketsuari zuzentzen diotela beren areriotasun guztia, germaniarra, aldiz, existituko ez balitz bezala isilean baztertuz, nahiz eta berau ere landuko balute, ziur hainbesteko higuinarekin –edota gehiagorekin– begiratuko lioketela.

Egin berri ditugun hausnarketek argi adierazten dute ideien nahasmen honetan nola edo hala idazteko prest gaudela; baina geureganatu dugun aldizkari formak azalpen bereziren bat behar du.

Ez dirudi literaturako forma iragankor eta behin-behinekoek duela gutxira arte zuten arrakasta aparta dutenik orain Alemanian. Eta bistakoa da nagusiki forma horiek dituen literatura batek ez duela jada gaurkotasunik. Pentsamendua osotasun handiko forma sendoetan garatzea da benetan estimagarria dena, hau da, era arruntean liburu deitzen ditugunetan. Baina hara: aldizkariak oraindik landu gabe dauden pentsamenduak zertzelada soil bezala –zeina beti ere erosoagoa baiten– hedatzeko aukera maiztasunez eskaintzeak, nolabait zaildu egiten du onak diren obra osoak argitaratzea, eta, zentzu horretan, arrazoi guztiarekin esan daiteke aldizkariak oztopo direla liburuak osatzeko (*Bücherebleiter*). Halere, zentzuarekin erabiliz gero, ondorio onuragarriak sor ditzakete. Ideia isolatuetatik liburu mardul eta onetara igarotzea, bata bestearen atzetik datozen pausoak dira, baina eraldaketa hori oso motela izan ohi da gehienetan. Aldizkari batek prozesu hori erraztu eta sustatzeko asmoa baldin badu, oso ondorio erabilgarriak sor ditzake. Honaino, aldizkariaren abantaila mintzatzean, bere autore eta kolaboratzaileen interesean aritu gara. Baina irakurleei begira ere, oso probetxugarria gerta daiteke aldizkari bat. Nazio bateko literatura ez da sortzen ez geldirik egonez, ezta liburu zein autore isolatuen bidez agertuz ere; aitzitik, jakintsu guztiek jendearekin bat eginez eta elkarrekintza nahiz erreakzioz sortzen eta pizten dute etengabe literatura. Nik uste dut gauza hauetan praktikoa den edonor erraz asko jabetuko dela horretaz, baita zailtasun handiagoa duten kasuetan ere, oraingo garaian eta gure nazioan bertan, alegia. Gauzak hainbesteko sakontasunez aztertu ezin dituztenentzat ere, agian interes handia du lehen aipatu dugun prozesu guztia denentzat agertzeak, eta bitartekari pape-
ra ondo baino hobeto bete dezake aldizkari batek, liburu bereziak baino inpresio biziagoa sortzeko moduan baitago, bai bere autoreen eta kolaboratzaileen ideia nagusiek bat egiteagatik, bai sarri eta partzialki agertzeagatik.

Hona hemen, bada, zergatik dirudien aldizkari batek zerbitzu on bat eskaini dezakeela –aipatutako gehiegikerian erortzen ez den bitartean–, batez ere jende ikasiari dagokionez; horregatik, autoreek, irakasteko daukaten bokazio berezian, beren ahalegi-na gauzatzeko bizigarri berri bat aurkitu dute.

Alabaina, bere izenak adierazten duen legez, garrantzi bikoitza dauka bai bere denborarekin, bai orainaldiaren estimazio egokiarekin, eta baita iragandako adinetako literaturarekin beste edozeinek baino harreman handiagoa daukan ekintza batean.

Zailtasunik gabe ikus daiteke autore hauek zeinen urruti dauden orain arte nagusi izan den gau iluna argitzeko beharra dagoela dioen ikuspuntutik; horren ordeztu, ikuskera historikoa defendatzen dute. Baina, bestalde, itsu-itsuan miresten dute iragana, gehiegi, eta hori beste presuntzio hura baino arriskutsuagoa da, ahuldu egiten dituelako indarrak. Horregatik, praktikara eraman behar da zentzu historikoa, hitz hutsetan gelditu gabe. Duela gutxi esan da zuzenbide erromatarra dela zuzenbide guztien artean nagusi eta garrantzitsuena, eta zuzenbide modernoek egiten duten gauza bakarra, jada bilduta dauden iritzi eta teorien artean aukeratzea dela, edota, gehienez ere, arrazoi berriekin defendatzea, nahiz eta, gehienetan, aitzinakoetan oinarritzen diren. Horrela izango balitz, ogibide mekaniko hori –non inoiz ez den faltako asmakuntza propio eta berriak egiteko aukerarik– duina irudituko litzaiguke talentuzko gizon batentzat, baina ez gure zientziarentzat. Zorionez, ez da horrela. Dena den, ezin dugu baieztatzen horren bidez XVI. mendeko zibilisten garrantzia txikitu. Aldizkari honetan, garai eder hartako handitasuna aldarrikatzeko aukera izango da behar bada. Orduan hasi ziren historia eta filologia gure zientzian aplikatzen. Pauso bakoitzean, iturri berriak aurkitzen ziren, eta, edozein tokira begiratuta ere, ezagutza berriei esker, inoiz susmatu gabeko erlazio multzo opa-roak aurki zitezkeen. Horrek, konfiantza eman zuen norberaren indarretan, eta ikerketak ere neurri berean eta mugarik gabe garatuko zituztela sinesten hasi ziren, eta horrela, etorkizunean aberastasun itzelak edukiko zituztela, makilatxo magiko bat edukitzean bezala. Gure denborak, ordea, ez du haien antzik; horregatik diogu gaur egungo juriskontsultuek, banaka aintzat hartuta, ez dutela sekula gizon puska haiek bezalako osperik izango. Baina bizitza ez da gelditu, eta, denboraren poderioz, XVI. mendean pentsatu ere ezin zitezkeen zenbait gauza posible dira orain. Garai hark iraganarekin duen harremanak antzekotasun handia du borondate oneko gizakiak bere garaikideekin duen harremanarekin: pozik aitortzen du besteen meritua, eta miretsi egiten du obra handi oro, baina ziur dago bere bokazioaz. Egia handia da, bestetik, Paracelso-k ikasle eta irakaslearen arteko harremanei buruz modu zoragarrian esandakoa:

“Ikasle baten bertuterik garrantzitsu eta miresgarriena, bere diziplinak hego handi indartsuak ematen dizkion bitartean argizaria bezain bigun mantentzeko daukan ahalmena da, eta, horrela, ekidin egin dezakeela kolpea. Goresgarria da gazteek zaharrak beren habietatik botatzea, uneoro gainditu egin behar baitituzte zientzian eta trebezian, kemenean eta gogoan, eta, pago gazteak hazten diren bezala hazi behar dute, handitu ahala pago zaharrekin lehiatuz”.

Hauek dira, bada, Aldizkari hau sortzerakoan ditugun usteak eta xedea. Bere edukia, berriz, honela aurkezten dute liburuko oharrek:

1. Zuzenbidearen zientzia positiboko arlo guztiei buruzko saiakerak; zuzenbide erromatarrari eta germaniarrari buruzkoak batik bat. Aldizkari honen helburuari jarraiki, oro har ikuspuntu zientifikoa eta bereziki historikoa daukaten lanak soilik argitaratuko ditugu. Praktiko hutsak diren artikulua baztertu egingo dira.
2. Zuzenbidearen iturriak. Goiburu honetan, iturri juridikoak hauek barnebiduko ditugu:
 - a) inprimatu gabeak, gaizki edo partzialki inprimatu direnak, edo oso liburu arraroetan bakarrik inprimatu direnak;
 - b) bi edo hiru txandatan argitara daitezkeenak, ale bakoitzeko gainerako edukia gehiegi mugatu gabe;
 - d) interes zientifikoa dutenak.

Iturri hauek, beren esanahi historiko eta zientifikoa azalduko duen sarreratxo batekin joango dira beti, eta, beharrezkoa denean, baita itzulpen eta ohar argigarriekin ere.

3. Denetariakoak. Goiburu honen baitan argitaratuko dira:
 - a) erabilgarriak, arraroak edo nahiko ezezagunak diren liburu edo eskuizkribuetako literatur albisteak;
 - b) biografia juridikoetarako lan auxiliarrak eta irakaskuntza erakundeetako historia;

- d) iturri juridikoetako testuei buruzko ohar kritikoak, pasarte zailtarako interesgarriak eta argigarriak direnean;
- e) arlo zehatzetan ikerketa sustatzera zuzentzen diren artikulu laburrak.

4. Aipamen kritikoak, aukeraketa zorrotz bat egin ostean betiere.

Esandako guztia nahiko argi dagoen arren, zenbait ohar egitea komeni da:

Saiakera edo azterlanak dira, normala den bezala, egitasmo honen objektu nagusia, eta arlo zientifikora zuzentzen dira, zuzenbidearen historiara bereziki, non metodoa edota egitateen ikerketa gailentzen diren. Horregatik, helburu praktikoa deiturikoa, hau da, bai justizia administrazioa, bai epailtza, bai abokatutza errazteko xedea daukaten mekaniken multzoa, Aldizkari honen aurreikuspenetatik kanpo gelditzen da. Iritzia okerra izango zenukete Aldizkari honetan zuzenbidearen historian barnebil daitezkeen lanak soilik sartzan direla pentsatuz gero; alderantziz, dogmatika eta interpretazioa guri ere badagozkigu, zentzu historiko batean beti ere; eta, oro har, lan bat gure Aldizkariaren xedearekin bat datorren edo ez jakiteko, ez zaio objektuari begiratzen, lantzeko ikuspuntu eta moduari baizik. Era berean, autoreek ez dute beren lanetatik arlo praktikoro kanporatu beharrik, jurista praktikoa eta zientzialariaren bokazioak elkarren aurkakoak bailiran, ez. Historikoaren eta ez historikoaren artean bakarrik dago erabateko antitesia, zeren eta kontu praktikoa zentzu zientifikorik delikatuenaekin trata daitezke, juriskonsultu erromatarren erantzunetan bezala, non kontsiderazio praktikoa eta historikoa, biak hein berean baitiren miresgarri. Ikertutakoa begirada soil eta berehalakoan argitzen denean, gurekin egon eta bizi den zerbait balitz bezala, orduan lortzen du garaipena ikerketa historikoak, eta une horretantxe egiten dute bat bi ikuspuntuek, historikoak eta praktikoa alegia. Baina ez da beti lortzen historia espiritu horrekin ikertzerik, eta lana prezio baxuagoan egin nahi ez izateak gauzak oso azaletik aztertzeri darama ezinbestean berekin, aurkako desira (materialtasunarena) baino askoz ere antzuagoa den espirituaren asmo hutsal batean. *“Oro har –dio Goethe-k–, ez dut aurkitu letrak oraindik ezezagun eta ilun zaizkiola espiritura iristeko asmoa duenaren harrokeria baino kaltegarriagorik”*. Edozein ikerlarirengan aurkitu nahi diren tasunak hauek dira: alde bateatik, zorroztasuna, hau da, gauzen barru-barruraino sartzeko grina izatea; eta, bestetik, apaltasuna.

Erabateko adostasuna dago zientzia historikoari eska dakioken lehendabiziko gauza inprimatu gabe dauden iturriak ezagutzera ematea dela esateko orduan. Zerbitzu hori zorioneko kasualitateen esku dago, ordea. Hortaz, aipaturiko iturriei buruz aurkitzen duten guztia igortzera gonbidatzen ditugu gure zientziaren jarraitzaile guztiak, autoreen erretolika berezirik gabe bada ere. Kasu horretan, aberriko zuzenbidearen historia ezagutzeko hezigarriak izan daitezkeenez izango dute agiriaren artean lehentasuna.

Azkenik, aipamenei dagokienez, literatura juridiko guztiari buruz kontu emateko asmoa daukagu, azaltzen doan heinean. Kritikagarriak izango diren bakarrak, autoreei ekarpen propioa egiteko eta zientziarako interesgarria izan daitekeena adierazteko aukera ematen dieten obra bereziak izango dira. Baina, muga hori egon arren, ez dugu uste gure eginkizun hau inolako erabilkortasunik gabea denik; zeren eta zuzenbideko obren laburpen on eta funtsezkoak nonahi agertzen diren arren, kritika juridikoak, oro har, poetak kantatutako Zoriaren antza handia du: *“jendetzaren artean atzematen da, eta une batean haurren ile kizkur errugabeetan pausatzen da, eta hurrengoan, aldiz, burusoilen buru errudunetan”*; desberdintasun bakar honekin: zoriak askotan errugabearen heriotza eragiten duela, eta kritikak, aldiz, merezi ez duenari bizia opatzen dio. Esandakoarekin, ziur zuzena den inork ez dituela Aldizkari honen autoreak harropuz nahiz handiustetzat joko, kritiko gehienengandik beren zentzuduntasun eta xalotasunagatik bereizi nahi dute eta.

Ezin dugu Aldizkari hau argitaratuko den maiztasunari nahiz bere iraupenari buruz ezer ziurtatu –ezta nahi ere–. Ziurta dezakegun gauza bakarra da, lana atseginez eta gaiarekiko maitasunez egin behar dugunez gero, behar duen maiztasunarekin kaleratuko dela; ez gehiagorekin, ez gutxiagorekin. Baina, asko edo gutxi iraun, inork ezingo du bere benetako helburutik sekula aldendu denik esan.